

**LITERATURA.** Aristoteles, Platon, Nietzsche, Kant, Fromm, Freud eta beste hainbat idazleren lanak plazaratu ditu

# Klasikorik handienen euskarazko gunea

Hamar urte dira aurten Pentsamenduaren Klasikoak bilduma kaleratzen hasi zenetik, eta 60tik gora liburu ditu jada

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Hamargarren urteurrena du ospakizun aurten Pentsamenduaren Klasikoak bildumak, eta beste bospasei urte barru, hasierako egitasmoa burutan emanik, bilduma 100 aleetara heldua izatea espero dute arduradunek.

Pentsamendu unibertsalaren historiako egile ezagun eta eraginkorrenen liburuak euskaraz argitaraturik emateko asmoz sortu zuten 1991n Klasikoak S.A. irabaz asmorik gabeko sozietatea BBV Fundazioak, BBK Fundazioak, Kutxa Fundazioak, Vital Kutxa Fundazioak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. Pentsamenduaren Klasikoak argitalpen bilduma jarri zuen abian sozietate horrek, eta dagoeneko 65 liburu daude plazan, Aristoteles, Platon, Spinoza, Leibnitz, Seneka, Kant, Montaigne, Shopenhauer, Montaigne, Descartes, Camus, Durkheim, Freud, Fromm eta Rousseauenak, besteak beste.

Xabier Mendiguren Bereziartu izan zen hasieran proiektuaren eta bildumaren zuzendaria. Hark eratu zuen bilduma aurrera ateratzen ari den itzultzaile taldea, eta berak egin zuen koordinazio lana ere. Funtsen Mendigurenek sortu eta koordinatutako itzultzaile talde hori da egun bilduman lan egiten ari dena. Lan hori amaitu



XOUSE SIMAL  
Andoni Unzu, Xabier Mendiguren eta Pello Salaburu, bildumaren bigarren fasearen aurkezpenean.

eta bilduma abian jarririk kargu hori utzi zuen Mendigurenek eta kargua bera ere desagertu egin zen.

Euskal kulturaren munduko pertsona ezagunak daude bildumako itzultzaile, berrikusle eta hitzaurregileen artean, hala nola Piarres Xarriton, Eduardo Gil Bera, Xabier Mendiguren Bereziartu, Xabier Amuriza, Lontxo Oihartzabal, Beñat

Oiartzabal, Joxe Azurmendi, Xabier Kintana, Paulo Iztueta, Jokin Apalategi, Jesus Altuna, Juan Garzia, Paulo Agirrebaltzategi, Juan Mari Lekuona...

Bildumako batzorde zientifikoa ere euskal kulturaren munduko pertsona ezagunek osatzen dute: Jesus Altuna, Bernardo Atxaga, Ibon Sarasola, Joxe Azurmendi, Ander Menterola, Pako Garmendia... An-

doni Unzu du zuzendari batzordeak, eta Pello Salaburu lehendakari.

## Argitalpen zaindua

Liburuen argitalpena zaindua da, hala kanpotik nola edukiari dagokionean. Itzulpen guztiak jatorrizko hizkuntzatik abiatu-rik eginak dira eta itzultzailearen lanak berrikusle baten begiradari egin behar dio aurre



## Libururik salduena

Bilduman orain arte liburuaren argitaratutakoen artean, Emile Durkheimen *Hezkuntza eta soziologia* da libururik salduena. Oro har, irakasle- en eta irakaskuntzako joeren esku daude salmentak.

kasu guztietan; horretaz gain, bildumako obra guztiek aditu baten hitzaurrea dute.

Lehen fasean 50 liburu plazaratu, eta 1997an bigarren faseari ekin zioten. Bigarren fasean beste 15 liburu plazaratu dira jada eta 2001 urtea amaitzerako 70etik gertu izango da kopurua. Ondorengo urteetan, urteko bost liburu plazaratuz, 100 liburu osatuko dute.

## BILDUMARI BURUZKO HIRU BALORAZIO

EDUARDO GIL BERA

## «Oso autore onak dira hautatuak»

Michel Eyquem de Montaigne-ren *Entseiuak* osatzen duten hiru liburukiak itzuli ditu Eduardo Gil Berak Pentsamenduaren Klasikoak bildumarako. Horretaz gain, Gil Berak idatzia da Joanes Uhartea Donibane-koak idatzi eta Xabier Kintanak euskaratutako *Zientziarako argimeneen azterketa* liburuaren hitzaurrea.

«Bilduma aurkeztu zenean, unibertsitatean zegoen hutsune begi-bistako bat betetzea zen asmoa», azaldu du Gil Berak. «Baina unibertsitatetik kanpoko irakurleak ere, espe-

zialista ez denak, behar du Platon, Montaigne eta gisako hainbat idazleren lanak irakurtzeko aukera. Nik behintzat erabili ditut bildumako liburu batzuk, gustu handiz erabili ere, Frazerrena adibidez».

Pentsamenduaren Klasikoak bildumarako egin den liburu hautaketan ez zaio iruditzen Gil Berari funtsezko hutsune nabarmenik dagoenik. «Beti da kontu diskutigarria egile eta liburuaren hautaketa, eta horretan nork bere iritzia pertsonala izan dezake», dio. «Baina, oro har, nik ezagutzen dudaren neurrian, oso autore onen lanak itzuli dira Pentsamenduaren Klasikoak bilduman, eta ez dago hutsune nabarmenik».

Bilduman egindako itzulpenak ere gustuko ditu, oro har, Gil Berak.



IRAKURLEA

«Unibertsitatetik kanpoko irakurleak ere behar du bildumakoen gisako idazleen lanak irakurtzeko aukera»

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

## «Euskal prosa mamitzen lagundu du»

Xabier Mendiguren Bereziartu Kontseiluko lehendakaria da Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren jatorrizko ideien sortzaile eta bultzatzaileetako bat. Hasierako urteetan, gainera, zuzendari teknikoa izan zen. Bera arduratu zen bildumaren antolaketaz, itzultzaileak bilatzeaz eta gisako lanez.

«Azken urteetan itzulpen-gintzan bi proiektu handi ari dira garatzen gure artean», azaldu digu Mendigurenek: «bata, Literatura Unibertsala eta beste Pentsamenduaren Klasikoak. Bi proiektu hauek sortu zi-

ren urteetan euskara batua testuetan islatzeko aukera mamitzen ari zen. Euskara batuaren prozesua aurrera zihoan heinean, hori mamitu beharra zegoen, gorpuztu. Bi proiektu horiek euskara batuaren proiektuari gorputza, haragia, mamia emateko aukera bat ziren».

«Euskal prosa lantzen asko lagundu du Pentsamenduaren Klasikoak bildumak», Mendigurenen ustez, «itzulpen zainduekin, euskalki desberdinetako ekarpenekin, terminologia sortuz eta landuz».

«Bildumarako itzuli beharreko liburuaren hautaketa egitean, helburua ez da izan obrarik onenak edo sakonenak aukeratzeko», argitu digu Mendigurenek. «Garai guztietako obra nagusiak kontuan izateko asmoa ere bazegoen, hizkuntza